




100.000 atzerritar baino gehiago daude afiliatuta

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Atzerritarren kopurua



Iturria: Gizarte Segurantza.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren afiliatutako atzerritarren kopuruak maximo berri bat ezarri zuen maiatzean, 100.000 pertsona baino gehiago baitziren. Afiliazioa %4,9 igo zen iazko maiatzarekin alderatuta. Gainera, datu hori serie osoko beste maximo bat da eta 2012tik bikoiztu baino gehiago egin da, %106,7 hazi eta gero.

Etxebizitzaren salmenta sendo hazi da apirila arte

EAEEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtariletik apirilera bitartean




Iturria: INE.

INEren arabera, aurtengo lehen lau hilabeteetan EAEko etxebizitzaren salmentak %23,7 egin zuen gora, 2024ko aldi berarekin alderatuta. Kopuru hori 2007tik izan den handiena da. 2025eko lehen lauhilekoan, 8.627 etxebizitza saldu ziren, eta 2022ko aldi bereko zifrak gainditu ziren, pandemiaren ondoren eskari handia izan baitzen urte horretan.



Marka berria hoteletako gualdietan maiatzean

Hoteletan igarotako gualdiak
Urte bakoitzeko maiatza. Milakoak




Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, maiatzean 741.344 gualdi erregistratu ziren EAEko hotel establezimenduetan. Horrek esan nahi du %7,9ko igoera lortu dela 2024ko hilabete berarekin alderatuta, eta maiatz batean inoiz erregistratu den zifrarik gorena dela. Europa Leagueko finalak igoera ezohikoa ekarri zuen Bilboko gualdietara, %14 hazi baitziren urte arteko tasan.

Zerbitzuetako negozio zifra areagotu zen apirilean

Negozio zifra zerbitzuetan
Urte bakoitzeko apirila. Indizea



Iturria: INE

INEk argitaratutako informazioaren arabera, zerbitzuen negozio zifra %4,1 igo zen apirilean. Hazkunde horri esker, apiril batean serie historiko osoaren erregistrarik onena lortu zen. Negozio zifraren igoerak, ordea, apenas sortu zuen enplegurik, eta okupazio indizearen urte arteko hazkundera %0,1 baino ez zen izan.